

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko abuztuaren 5etik 9rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEKO INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisia


Ekaineko industria-ekoizpenak % 1,8 egin zuen behera 2018ko hil beraren aldean, eta azken hilabeteetako beherazko joera berreskuratu zuen, maiatzean soilik eten zena (% 1,8ko igoerarekin). Aldiz, urtaroen eta egutegiaren eraginagatik zuzendu den datua aztertuz gero, eta eraikuntzaren sektorea kontuan hartu gabe, indizea urte arteko % 1,8 igo zen, maiatzean baino lau hamarren gehiago (% 1,4). Igoera horren arrazoia energiaren, ekipo-ondasunen eta kontsumo-ondasunen ekoizpenak izandako portaera ona izan zen, bitarteko ondasunen % 1,9ko beherakadari kontrajarria. Herrialdeka, espero baino handiagoa izan zen beherakada Alemanian eta Frantzia, eta jaitsiera arinak izan ziren Espainian eta Italian, espero baino emaitza hobekak lortu bazuten ere.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisa egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

BPGd ERRESUMA BATUA



Datuaren analisia


Erresuma Batuan, hazkunde ekonomikoak % 0,2 egin zuen atzera, urteko bigarren hiruhilekoko BPGd-aren argitaratutako datuen arabera. Beraz, ekonomia britainiarra atzeraldian sartu zen, lehen aldiz 2012tik. Bilakaera hori hertsiki lotuta dago Brexitak eragindako ezinegonarekin.

Adierazlearen azalpena

Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Erresuma Batuak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: MANUFACTURENA EZ DEN ISMa



Datuaren analisisia


Datu ofizialen arabera, Estatu Batuetako hirugarren sektorearen hazkundea mailarik baxuenera jaitsi zen 2016ko abuztutik, manufacturena ez den ISM adierazlearen arabera. Zehatz-mehatz, 53,7 puntuetan kokatu zen adierazle horren uztailleko irakurketa, ekaineko 55,1 puntuetatik oso urrun eta analistek aho batez aurreikusitako 55,5 punturainoko igoeraren aldean. Bada, ekoizpenaren eta eskari berrien murrizketan egongo litzateke beherakada horren azalpena. Halaber, garrantzitsua da jakitea datu horrek ez duela gerra komertzialari buruzko azken albisteak kontuan hartzen.

Adierazlearen azalpena

Manufacturena ez den ISM indizeak hileroko erorketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen jardura-maila neurtzeko balio du, sektore horretan egiten diren erorketen bidez. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Estatu Batuetako kontsumoaren KPIaren zati handi baten isla ere bada. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: 2. HIRUHILEKOKO BPGd



Datuaren analisisia


Bigarren hiruhilekoko BPGd-aren datuaren arabera, Japoniako ekonomia urteko % 1,8ko erritmoan hazi zen bigarren hiruhilekoan. Ezusteko atsegina izan zen, eta dagoeneko hiru hiruhileko jarraian egin ditu hedapen bidean. Igoera hori kontsumo pribatu sendoaren eta enpresen inbertsio indartsuaren eskutik etorri zen, eta mundu-mailako eskariaren ahultzeak ekarritako gainbehera orekatu zuen. Nolanahi ere, esportazioek, Japoniako ekonomiaren eragile nagusia, etxeko kontsumoarekin batera, % 0,2 egin zuten atzera 2018ko apirila eta ekaina bitarteko datuaren aldean, eta % 0,1 2019ko lehen hiruhilekoari dagokionez.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketak eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: KPI



Datuaren analisisia

Txinako inflazioak gora egiten jarraitu zuen uztailean, urte arteko % 2,8 igo ondoren, bere kotarik txikiena 2018ko otsailetik. Izan ere, ekoizpenaren prezioen indizeak, handizkako inflazioaren neurgailuak, bere urte arteko lehen beherakada izan zuen 2016ko abuztutik, % 0,3koa, hain zuzen ere.

Adierazlearen azalpena

KPIa hilerok prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
08/13	Alemania	Hileko KPIa	% 0.5
08/13	Espainia	MoM azpiko KPIa	--
08/13	Espainia	Hileko KPIa	-% 0.6
08/13	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 3.8
08/13	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	-6.3
08/13	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	-28.0
08/13	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
08/13	Estatu Batuak	Hileko KPIa	% 0.3
08/14	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6.0
08/14	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 8.6
08/14	Frantzia	ILO Langabezia-tasa	% 8.6
08/14	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	-% 0.1
08/14	Frantzia	Hileko KPIa	-% 0.2
08/14	Erresuma Batua	Hileko KPIa	-% 0.1
08/14	Eurogunea	Hileko SA industria-ekoizpena	-% 1.4
08/14	Eurogunea	Hiruhileko BPGd SA	% 0.2
08/15	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
08/15	Erresuma Batua	MoM txik. salmentak autoen erregairik gabe	-% 0.2
08/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	1.9
08/15	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	10.0
08/15	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.3
08/15	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	212k
08/15	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.1
08/16	Eurogunea	Balantza komertziala SA	18.5b
08/16	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1253k
08/16	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	-% 0.0
08/16	Estatu Batuak	Hileko eraikuntza-baimenak	% 3.1
08/16	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	97.4
08/16	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
08/16	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--

BURTSA:

Hegazkortasuna munduko burtsa-merkatuetan, eta saldo negatiboarekin asteko metatuen. Krisi komertziala eta Italiako egoera politikoa izan dira inbertsiogileen arreta-gune nagusiak. Hori guztia, gainera, hazkunde aurreikuspenek okerrera egin zuten unean, Europan batez ere. Gerra komertzialari dagokionez, joan den astelehenean Txinak azken hamarkadako mailarik baxuenera eramane zuen yuana, aurreko astean Trumpek muga-zerga berriak jartzeko mehatxuari erantzuteko. Pekinek, gainera, Estatu Batuetako nekazaritza-produkturik ez erosteko eskatu zien herrialdeko enpresa publikoei. Hala ere, ordu batzuk beranduago, Txinako Banku Zentralak bere dibisaren jaitsiera geldiarazi zuen, merkatuak espero zuena baino truke-tasa handiagoa finkatuz. Neurri horri esker, burtsen beherakadak ere gelditu egin ziren. Barealdiak bi egun eskas iraun zuen, Txinak hartutako neurriei erantzuteko, Donald Trumpek adierazi baitzuen AEB «ez dagoela prest» Txinarekin akordio komertzial bat ixteko, eta negoziazioekin jarraitzeko asmoa agertu arren, ez zion Huawei enpresari betoa kendu. Bien bitartean, Europan beste kezka-iturri bat piztu zen, Italiako *Lega Nord* eta *Movimento 5 Stelle* alderdien arteko koalizio gobernuaren hausturak eragindakoa. Makro ingurunean, datu positiboa Txinako balantza komertzialaren argitalpenarekin etorri zen, aurreikuspenak gainditu baitzituen. Datu negatiboa, aldiz, Alemaniako industria-ekoizpenak 2009tik bizitako beherakadatik handiena izan zen. Bigarren hiru hilabetez enpresa-emaitei begira (AEBetan % 85 argitaratu dira dagoeneko, eta Europan % 80), espero baino hobeak izan ziren berriz ere. AEBetan, enpresen % 76k aurreikuspenak gainditu zituzten akzio bakoitzeko etekinari dagokionez, eta, Europan, enpresen % 59k.

ERRENTA FINKOA:

Testuinguru horretan, zor publiko subiranoa babes-aktibo izan zen, eta «core» tasek behera egin zuten, AEBetan zein Europan. Europako herrialde periferikoek diferentzialak handitu zituzten Alemaniari dagokionez. Zor italiarra izan zen zigortuena, herrialdeko egoera politikoa ezegonkortasunagatik, eta gainerako herrialdeak kutsatu zituen. Bund alemana minimo historietan kokatu zen berriz, -% 0,58an. Espainiako bere homologoak, berriz, 2 op egin zuen gora, % 0,26raino. Italiako 10 urterako tasak ere 26 op egin zituen gora astean. Kredituak, bestalde, diferentzialak handitu zituen.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Burtsaren atalean adierazi dugun moduan, dibisa-merkatuen arreta bereganatu zuen yunak, nahiz eta dolarreko 7 unitatetik gora mantentzea lortu. Euroak balioa irabazi zuen dolarraren aurrean, eta dibisa britainiarrak azken bi urteko minimoetara heldu zen euroaren aurrean, BPGd-aren datu txarraren eraginez. Lehengaiak begira, petrolioaren prezioak jaitsiera handiak izan zituen, eta urrearen prezioak, aldiz, gora egin zuen. Bi mugimenduak merkatuen ziurgabetasunaren isla garbia dira. Petrolio gordinaren ekoizpena murrizteko aurreikuspenak Brentaren prezioaren beherakada handiagoa ekidin zuen.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.637,67	-0,87	13,61
IBEX 35	8.757,80	-1,57	2,55
DJ EURO STOXX 50	3.333,74	-1,26	11,07
DJ STOXX 50	3.060,56	-1,68	10,89
FTSE	7.253,85	-2,07	7,81
S&P 500	2.918,65	-0,46	16,43
Dow Jones	26.287,44	-0,75	12,69
NASDAQ	7.959,14	-0,56	19,95
NIKKEI 225	20.684,82	-1,91	3,35
MSCI GORAKORRAK (Lo)	55.104,05	-1,63	3,15
MEXBOL	40.421,28	1,11	-2,93
BOVESPA	103.996,20	1,29	18,33
SHANGHAI	2.906,68	-3,24	11,31
Errusia Rts Mosku	1.289,47	-0,29	20,95

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,86	-0,07	-0,25
ESPAINIA 2 URTE	-0,49	0,00	-0,25
AEB 2 URTE	1,65	-0,07	-0,84
ALEMANIA 10 URTE	-0,58	-0,08	-0,82
ESPAINIA 10 URTE	0,26	0,02	-1,16
AEB 10 URTE	1,74	-0,10	-0,94
ALEMANIA 30 URTE	-0,07	-0,08	-0,95
ESPAINIA 30 URTE	1,17	-0,01	-1,44
AEB 30 URTE	2,26	-0,12	-0,76
Kreditu-sprea (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	56,66	3,54	-31,71
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24	281,51	15,26	-72,18

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,12	0,82	-2,35
Yena / Euroa	118,33	-0,05	-5,86
Libera / Euroa	0,93	1,96	3,59

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brent)	58,03	-5,23	9,14
Urrea	1.492,31	3,59	16,36

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.